


Espainiako zentral nuklearrak

(*) MWe: megawatt elektriko (potentzia elektriko)



3 COFENTES
Lekua: Valencia
Potentzia elektriko: 1.096 MWe
Ustapenerako behin-behineko balmena: 2021

4 SANTA Mª DE GAROÑA
Lekua: Burgos
Potentzia elektriko: 466 MWe
Ustapenerako behin-behineko balmena: 2009

1 ALMARAZ-1
Lekua: Cáceres
Potentzia elektriko: 980 y 984 MWe
Ustapenerako behin-behineko balmena: 2010

2 ASCÓ-1 y ASCÓ-2
Lekua: Tarragona
Potentzia elektriko: 1.033 y 1.027 MWe
Ustapenerako behin-behineko balmena: 2021

7 VANDELLÓS-2
Lekua: Tarragona
Potentzia elektriko: 1.087,1 MWe
Ustapenerako behin-behineko balmena: 2010

8 JOSÉ CABRERA (ZORITA)
Lekua: Guadalupe
Potentzia elektriko: 160 MWe
Itxi zuten urtea: 2006

5 TRILLO
Lekua: Guadalupe
Potentzia elektriko: 1.066 MWe
Ustapenerako behin-behineko balmena: 2014

6 VANDELLÓS-1
Lekua: Tarragona
Potentzia elektriko: 480 MWe
Itxi zuten urtea: 1990

Hondamendi nuklearra Japonian

2011ko martxoaren 11an lurrikara eta tsunami batek Japonia hondatu zuten. 20.000 hildako eta desagertutako baina gehiago eragin zuten. Egunean bertan hondamendi nuklearra hasi zen: horniketa elektrikoaren faltagatik.

Krisi guztian isurtako erradioaktibitateak pertsonnei eta ingurumenari, itsas fauna eta flora barne, eragiten die.

Fusiohimen zentralak haren erreaktoreak ez zituen hoztu.

Greenpeaceek istripua izanez gero zentral nuklearren jabe diren enpresek kostu guztiak onar ditzaten eskatzen dio espainiar Gobernuari eta zentral nuklearren mailakako baina presasako txiera plan bat abiarazi dezala eskatzen du.

Sistema energitiko jasangarri bat ahalbidetzeko neurriak hartzea beharrezkoa da, %100ean energia berriztagarrietan eta aurrezte eta eraginkortasun energitiko oinarritua.

JARRAITU GREENPEACE SARE SOZIALETAN
Lagun itzazu @greenpeace_esp mezu zabaltzen
#NuclearesNo esan
www.facebook.com/greenpeace.spain
www.twitter.com/greenpeace_esp
www.tuenti.com/greenpeace

GREENPEACE

NI ERE NUKLEARREN KONTRAKOA NAIZ

ENERGIA NUKLEARRA ENERGIA-EREDU IRAUNKOR BATEKIN BATERAEZINA DA.

EZ DU BETETZEN HAREN BALDINTZA BAT ERE: EZ DA EZ ERAGINKORRA EKONOMIA-ARLOAN, EZ BIDEZKOA GIZARTE-ARLOAN, EZ ONARGARRIA INGURUMEN-ARLOAN.



www.greenpeace.es



Eta orain, zer?

ARE ARRAZOI GEHIAGO BEHAR DITUZU?

Datu guztiek energia nuklearra bazterrazten badigute, zergatik bizi gara oraindik zentral nuklearren ondoan? Zoritzarrez, interes ekonomiko asko daude industria honen azpian, eta diru asko erabiltzen dute kanpaina politikoa eta publizitatea egiteko eskala handian. Horregatik, gure eta adiskideen, senideen eta ezagunen sinaduraren indarrak eta gure ahotsaz erantzun behar dugu, eta ozen eta argi esan www.greenpeace.es



1 Oso arriskutsua da

Ezbehar nuklear larri bat gertatzeko arriskua handiagoa bihurtu da azken urteotan, erreaktoreak zahartuta gelditu direlako, zentralen jabeek ahalik eta etekin gehien atera nahi dutelako segurtasun neurriak murriztearen kontura eta, mundu osoko inteligentzia agentziek onartu dutenez, instalazio nuklearrak terroristen erasoen jomuga izan daitezkeelako.

Tamalez, adibide asko ditugu: Fukushima (Japón), Three Mile Island (AEB), Windscale (Erresuma Batua), etab. Hurbilago ere baditugu adibideak: Vandellós I eta Ascó I zentraleko jario erradioaktiboa; 2007ko azarotik 2008ko apirilera arte, isilpean eduki zuten. Txernobilgo tragediak dozenaka mila hildako eragin ditu jadanik, eta erakutsi zuen kalte egiteko eta hondamendiak eragiteko ahalmena duela energia-iturri honek.

2 Energjarik zikinena da

Zentral nuklearrek hondakin erradioaktiboak sortzen dituzte. Dozenaka mila urtetan dira arrisksuak hondakinok, eta oraindik ez dugu ebatzi haiek kudeatzeko, tratatzeko edo/eta deuseztatzeko arazoa. Gainera, martxan dauden bitartean, erradioaktibitatea igorri ohi dute ingurumenera, bai egoera likidoan, bai gas-egoeran. Gas-egoeran dagoen erradioaktibitatea atmosferara heltzen da, eta egoera likidoan dagoena, itsasoetara, ibaletara eta urtegiara; horiek behar ditu hozteko. Kutsadura da hori, nahiz eta erradioaktibitatea ezin den ez sentitu, ez ukitu, ez ikusi, ez entzun, ez usaindu.

Plutonio-239 isotopoa 24.000 urte bizi da batez beste, eta plutonio-240 isotopoa, 2.130.000 urte. Plutonio-239 gramo bakarrak milioi bat lagun bakoitza behar du eragin diezaieke minbizia.

3 Lanpostu gutxien sortzen duen energia-iturria da

Sortutako energia unitateko. Edozein energia berriztagarri baino gutxiago Comisiones Obreras eta Energia Aurreztu eta Dibertsifikatzeko Industri Ministerioaren Institutuaren (IDEA) arabera, 2010 azaroan argitaratutako txostenean.

2010 urtean, CC.OO. eta idea-ren arabera, espainiako energia berriztagarrien sektoreak 70.000 enplegu zuzen sortu zituen (eta 45.570 ez-zuzen), sektore nuklearrak baino 8 aldiz gehiago.

4 Oso energia garestia da

Iraungo badu, Estatuak diru-laguntza handiak eman behar ditu etengabe, eta guztiok ordaintzen ditugu laguntzok...

Hondakin Erradioaktiboen Espainiako Enpresaren (Enresaren) kalkuluen arabera, hondakin erradioaktiboak kudeatzea 13.000 milioi euro baino gehiago ere kostako da Espainian 2070era bitartean.

Olkiluoto III erreaktorea, Finlandiakoa, porrot nuklearra izan da: lau urteko atzerapena darama, diseinuak milaka akats ditu eta milioi askoko gainkostua (5.500 milioi eurotik gorakoa) izango du.

5 Ez da beharrezkoa

Alemanien kasuak zera egiztatzea baimentzen du, **borondate politikoa badago, litekeena da energia nuklearra alde batera uztea** eta, aldi berean, CO₂ isuriak murriztea, Kyotoko Protokoloarekin bat.

Alemania munduan lehena da energia eolikoa ekoizten, eta eguzki-energia fotovoltaikoa sortzeko hango instalazioa Espainiakoa halako hamabost da, Eguzkiaren batez besteko irradiazioa Espainiakoa baino askoz ere txikiagoa izan arren. Comillas Unibertsitate Pontifikaleko Ikerkuntza Teknologikoen Institutuak %100 berriztagarria txostena egin zuen, eta, haren arabera, litekeena da penintsulako behar elektrikoaren %100i erantzutea, egunean 24 orduz, urtean 365 egunez, betiko teknologietan oinarritutako sistema baten kostua baino txikiagoaren trukean gainera.

6 Ez da klimaren aldaketaren aurkako konponbidea

Energia nuklearra inoiz ere ez da izango ekonomiaren aldetik bideragarria eta eraginkorra CO₂ isuriak murrizteko eta, hartara, klimaren aldaketaren aurka borrokatzeko.

Energia aurrezteko eta eraginkorra izateko neurrietan inbertitzen dugun euro bakoitzari esker, euro hori zentral nuklearrak eraikitzeko erabiliko bagenu halako zazpi murriztu ditzakegu CO₂ isuriak. Elektrizitatea sortzeko teknologia ez-fosilen (alegia, energia nuklearraren eta energia berriztagarrien) ziklo osoa kontuan hartuz, energia nuklearrak edozein energia berriztagarri baino CO₂ gehiago isurtzen du sortzen den kWh bakoitzeko. Izan ere, erregai fosil ugari erabiltzen da ziklo nuklearreko etapa guztietan. Zentral nuklearrak eragozpen handia dira energia berriztagarriak eskala handian ezartzeko.

7 mendekotasuna sortzen du energia-arloan

Ziklo nuklearraren fase gehienetan, **Espainia atzerriko herrialdeen mende dago erabat, hala nola, uranioa inportatzeko** eta aberasteko eta erreaktoreak diseinatzeako; erregaiak fabrikatzeko patenteak ere atzerrian egindakoak dira.

Espainiako zentral nuklearretan erretzen duten uranioaren %100 inportatu egiten dute.

Energia nuklearrak ez du zereginik petrolioarekiko gure mendekotasuna nabarmen murrizteko, petrolioaren %95 garraio-sektorean erabiltzen baitugu.

8 Agortu ere egiten da

Kontsumoaren erritmoak egungoa izaten jarraitzen badu, Uranio-235 isotopoaren (erreaktore nuklearretako erregaiaren) erreserbek **hainbat hamarkada gehiago bakarrik** iraungo dute, 400 erreaktore baitaude 2012 urte hasieran munduan.

Jakina, munduko instalazio nuklearren kopurua handiagoz badute, are gutxiago iraungo dute.

9 Ez du gizartearen babesa

Iritzi-inkestek diotenez, **Espainiako herritar gehientsuenak** elektrizitatea sortzeko modu honen kontra daude.

Espainiako herritarren %60 energia nuklearra erabiltzearen guztiz aurkakoa da, eta %25 bakarrik dago alde, Soziologia Ikerkuntza Zentruak (CIS) azken inkestaren arabera. Gainera, populazioaren %70ak nuklearrak arriskutsuak direla kontsideratzen du.

10 Arma ugaritzen laguntzen du

Energia nuklearra bakegintzan erabiltzen da ustez, baina material nuklearrak arma atomikoak fabrikatzeko edo helburu terroristetarako desbideratzea dakar horrek, eta arma nuklearrak behin betiko deuseztatzeko ahaleginei azpiak jaten dizkie horrek.

Arma atomikoak fabrikatzeko plutonioa zentral nuklearretan sortzen diren hondakinetatik eskuratzen dute, eta hainbat herrialdeak (hala nola, Indiak, Pakistanek eta Ipar Koreak) desbideratu dute, arma atomikoak fabrikatzeko.